

GIZARTEA ▶

# Epaitegian errekurtsioa jarriko du Oiangu Bizirik plataformak

«Parkearen izaera publikoa» defendituko dute; gaurtik hasita, hainbat ekimen egingo dituzte, gainera

MAIDER DEL OLMO

Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak jakinarazi duenez errekurritu egingo dute parkearen kontzesioa. Abokatuekin lanean ari dira, eta laster izango dela esan dute. Helburua, parkearen «izaera publikoa defenditzea» da, haien esanetan. Horez gain, gaurtik hasita, hainbat ekimen egingo dituzte herrian: datozen egunetan ikastetxeetako ordezkariekin bilera egin, etxez etxe eskuorriak banatu, ahalik eta informazio gehien emateko...

Oiangu Bizirik plataformako kideen arabera, «garaiz gabiltza proiektua gelditzeko. Plan Berezia onartu gabe dago oraindik. Dena ez dago erabakita, beraz». Kontzesio-prozedura «akats bezalako» dagoela esan dute: proiektuaren garapen eta onte-prozesua hainbat urtetik hona «ezkutu» egin dela salatu dute: «Udalak ez du halako proiektu batek beharko lukeen gardenetasunik erakutsi». Epaitegira joko dute kontzesioa errekurritzeko. Hala eta guztiz ere, «arrazoi asko daude», haien arabera, proiektua bertan behera uz-

teko. Nagusia, Oianguko egitasmoa «onura publikoaren kontra» doala.

«Oiangu Bizirik plataforma hainbat ideologiatako eta arlotako pertsonen osatzen dugu: hezkuntza, kultura, kirola, ingurumena, enpresa, gazteria, osasun publikoa, e.a. Udalaren arduragabekeria larria salatu nahi dugu. Gure ustez proiektuaren helburuan ez zaio lehentasunik ematen onura publikoari. Parkearen %50 inguru pribatizatu eta ezarriko diren aisialdi aukerez gozatu ahal izateko ordaindu egin beharko da», azaldu du Edurne Huesak.

Bestalde, J. De Juanek parkeko zuhaitzian egin asmo duten *pintball* jokoaren «balio negatiboak» azpimarratu ditu: «Gerrilla-gerraren itxura hartzen du. Bortizkeriarekin lotutako balioak bultzatzen ditu. Hori al da gazteentzat nahi dutena?» galdetu du De Juanek.

Egitasmoa garapen jasangarriaren kontrakoa dela ere uste dute. Alde horretatik garapen jasangarriaren oinarriak «ez ditu kontuan hartzen», plataformaren iritziz. Edurne Huesaren esanetan, «ez ditu errespetatzen Udalak ingurumen-



J. de Juan eta Edurne Huesa plataformako bi ordezkari. M. DEL OLMO

**J. DE JUAN**  
OIANGU BIZIRIK

«Balio negatiboak ditu egin nahi duten *pintball* joko zelaiak: gerrak eta bortizkeria, hori nahi dute gazteentzat?»

**EDURNE HUESA**  
OIANGU BIZIRIK

«Oianguko egitasmoak ez ditu errespetatzen Agenda 21en Udalak hartutako konpromisoak»

hezkuntza eta parte-hartzea (Agenda 21) bultzatzearen alde hartutako konpromisoak. Gainera, proiektuak ez du Ordiziako Goierri behar duten onura sortzen, ezta ingurumen eta gizarte balioak garatzen ere. Adibidez, ura ondasun publikoa eta urria izanik ere, ur asko erabiliko da golf zelaiak

itxuran mantentzeko eta igerilekurako», gehitu dute. Bestalde, «kalteak» harantzago doaz: zuhaitzak botako dira, pista eta aparkaleku berriak egingo dira, soinu eta argi poluzioak sortuko dira,... Horiek guztiak egitasmoa geldiarazteko «nahikoa arrazoi» direla adierazi du plataformak.

EUSKARA ▶

## EHUko udako ikastaroetan eta UEUn matrikula egitea diruz lagunduko dute

Udalaren Euskara Biziberritzeko Planaren baitako laguntza da

M. DEL OLMO

Datorren astelehenean irekiko da Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) matrikula egiteko epea, eta maiatzaren 2an, berriaz, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU-UPV) Uda Ikastaroetan izena emateko. Hori dela eta, Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuak gogora ekarri nahi du Udalak, Euskara Biziberritzeko Planaren barruan, matrikularen %50 ordainduko diela euskarazko ikastaroetan parte hartzen du-

ten langabetu edo ikasleei. Ordizian erroldatuta egotea, langabezia egotea edota ikasle izatea, eta beste inolako laguntzarik ez jasotzea baldintza ezinbestekoak dira Ordiziako Udalaren diru laguntza jasotzeko.

### Bete beharreko baldintzak

Horretarako udaletxeko bulego nagusian edota Euskara zerbitzuan jaso beharko da eskaera-orria. Eta, behin udako

ikastaroak amaituta, honako agiri hauekin batera aurkeztu beharko du: nortasun agiria- ren kopia, langabezia-txartelaren edota ikaslea dela ziurtatzen duen agiria- ren kopia, eta matrikula ordaindu duela ziurtatzen duen aurrezki kutxako agiria; horiez gain, hasitako ikastaroa bukatu duela eta eskoletara asistentzia ona izan duela ere egiaztatuta beharko du, aprobetxamenduari buruzko txostena aurkeztuta, laguntza jaso nahi badu.

EUSKARA ▶

## Kirol arloan euskara sustatzeko ekimena

M. DEL OLMO

*Begiraleek asko egin dezakete* saio praktikoa jasoko dituzte bihar eta etzi Txindoki atletismo taldea, O.K. Futbola eta O.K. Saskibaloia kirol taldeetako entrenatzaileek eta Majori kiroldegiko begiraleek. Ikastaroa, Ordiziako Euskararen Udal Aholku Batzordeak antolatuta du, aipatu kirol taldeetako eta Majori kiroldegiko zuzendaritzekin, euskara sustatzeko.

OHARRA ▶

## Agenda 21eko bilera gaur udaletxean

Bilera egingo dute, gaur, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko areto nagusian. Gaia Agenda 21 izango da. Antolatzailleek eragile guztiei dei egin die gaur parte har dezaten.

EUSKARA ▶

## I. Piropo lehiaketako sari banaketa

Gaur banatuko dituzte I. Piropo lehiaketako sariak Barrenan. Ordiziako gazteei begira antolatutako lehiaketa da. Sariak kultur etxean emango dituzte, 18:00etan. Guztira 232 lan aurkeztu dira lehiaketara: A mailan (14-15 urte) 135 esamolde, B mailan (16-17 urte) 94 esamolde, eta C mailan (18 urte eta hortik gora) hiru esamolde. Aurkeztutako lanen artean, maila bakoitzeko esamolderik onena aukeratu behar zuen epaimahaia, baita bigarren esamolderik onena ere.

OHARRA ▶

## 'Oiangu parkea SOS' hitzaldia bihar Bustuntzan

Oiangu Bizirik eta Publikoa plataformak hitzaldia eskainiko du bihar Bustuntzan, eskola liburuetan, arratsaldeko 19:00etan. Helburua Oianguko egitasmoari buruzko informazioa zabaltzea da. Antolatzailleek dei egin diete herritarrei hitzaldian parte hartzeko eskatuz.

KULTURA ▶

## 'Perez y Fernandez' obra bihar Ordizian

Zanguada antzerki taldeak *Perez y Fernandez* obra eskainiko du, bihar, Ordiziako Herri Antzokian, gaueko 22:15etik aurrera. Lana bi pertsonairen bizipen ingurukoa da. Biltegi batean lan egiten duten bi gizonen dira, gauzak oker joanda ere ez dute ezer egin euren bizitza aldatzeagatik. Umorezko lana da. Aktoreak Txubio Fernandez eta Patxi Perez dira, telebistako gizon oso ezagunak biak ala biak.